



abagune 'egokiera, momentu aproposa'	«Brastakoan bota zuen eskuen artean zerabilen artzain makila, eta lasterka joan zen etxera, abagunea galtzeko prest ez zegoela etxekoei jakinarazteko.»	(10)
abegitsu 'atsegina, abegikorra'	« Abegitsu izan nahia nahastu egiten zen jakin-minarekin, hondartzan ezagutu berritan kontatutakoetan sakondu gurarekin.»	(39)
ahapeka 'xuxurlatuz'	«...urte guzti haietan ni ahaztu ezinak bihotzaren gurariei men egin behar ziola esaten zion behin eta berriro ahapeka bazen ere.»	(28)
aitaren batean 'lipar batean, berehala'	«...atzeko atean zaratarik txikiena entzunda estalkia altxatu eta azpialdera pasatu aitaren batean , estalkia berriro kontu handiz itxita.»	(60)
alaena! 'halakoa!'	«—Eta zer mandatu eman dizute puta alaen harekin ikusi nindutela dioen horiek?»	(78)
alde 'diferentzia'	«Beste espaloira igaro, metro batzuen aldea bien artean utzirik.»	(80)
aldra 'jendetza, multzo nahasia'	«Españak ezin du lan bila datorrekin legez kanpoko etorkin aldra hori hartu.»	(112)
alegia 'hau da, hots'	«Egundoko jaia antolatzen dute (musulmanek) <i>fiur</i> delakoan; alegia , barauaren amaieran.»	(110)
alta (bada) 'ordea, hala ere'	«Nik, alta , bere begiak bilatu nituen bere irria entzun nahi nuela adieraziz.»	(53)
altzo 'sabela'	«Atzetik hurreratu nintzaion, gorputzaren kontra estutu, gizon izan nahi zuen mutikoa altzoan babestuz.»	(42)
anabasa 'dena hankaz gora'	«Etxean sartu ginen, anabasa zen; haltzaria hautsita edota urrututa, hormako margoak lurrera botata; telebista ere zoruan.»	(101)
anda 'ohatila, arkutsa'	«Hamar minutu geroago han zeuden medikua eta andari bi, alboan anda zeramala.»	(133)
andari 'kamileroa'	«Hamar minutu geroago han zeuden medikua eta andari bi, alboan anda zeramala.»	(133)
antzeman 'igarri, nabaritu'	«Irri baten atzean ezkutatu gura izan nuen une hartako ahulezia, Mikelengan antzematen nuen indarrari aurre egiteko bide bakarra bailitzan.»	(49)
antzu 'fruiturik eman gabe,	«Dena esanda dago; topikoak, hitz hutsalak, lasaitu baino mina mingotsago egiten duten kontsolamendu antzuak .»	(126)
apeta 'guraria, nahikaria'	«Begiratu, Mikel, auzi hau ez da nire apeta , zure ustez sarritan izaten ditudan kasketaldietako bat, alegia.»	(73)
araztu 'garbitu, xahutu'	«...zauria araztu eta hurrengo egunetan hartu behar zituen botikak idatzi zituen paper batean.»	(90)
arestian 'lehenago, duela gutxi'	«Jatekoak-eta aukeratu genituen, aukera hark arestian sorturiko tentsioa lasaitzeko eman zigun betari eskerrak emanda, neure barnean bederen.»	(109)
arestiko pairamendua 'lehengo sufrimendua'	«...dir-dir egiten zuen metalezko xafla izen-deituradunari begira, atzera (berriro) sentitu nuen arestiko pairamena zetorkidala.»	(48)
arranbera 'txintxirrina, zintzarria'	(Errege Magoek) «...umeari arranbera bat eta jantzi bat ekarri dizkiote.»	(64)
arrangura 'atsekabea, intzeria, kexa'	«...kanpoan edo barruan segitu behar zuten erabakitzeko unea heldua zela arranguraz esanda, atea ixteko zirkin eginez.»	(12)
arrapataka 'atoan, arrapaladan, arineketa'	«...hogeita lau gizonen arrapataka alde egin zuten, hondartzan barrena zetorren poliziarengandik ihes egin nahian.»	(19)
arrenka ibili 'otoizka, erreguka'	«Umiliaturik sentitzen nintzen kabroi haren aurrean, arrenka ; nire mina nabariarazi nion...»	(137)
arrikuak arriku 'beldurra gora-behera'	«...(arrikuan dago Ahmed) Etxean itxirik egon beharrak ez zuen batere poztu. Arrebaren bila irten nahi zuen gurekin, arrikuak arriku .»	(70)



artean 'oraindik' (lehenaldian)	«...zazpiak zazpietan heldu nintzen esandako lekura, Mikel Ahmed eta Said artean iritsi gabe.»	(131)
artega(tu) 'urduri(tu)'	O«statuan bilduriko hogeita lau gizonak artegaturik mugitzen hasi ziren.»	(17)
artez 'zuzen'	«Atean geratu zen, aurrera egin ez egin erabakitzen, nire lagunari begira, artez .»	(27)
atoi '(zamarako) gurdia'	«...orduak eskua kristalik gabeko leihotik atera eta bi kope jo zituen atzeko atoiaren burdin xaflan.»	(18)
atzerare 'ostera ere, berriz ere'	(Hasieran isilik egon dira) «Lehen jakiak amaituta, bigarrenaren zain gelditu ginen, atzerare isilik.»	(110)
auzi-mauzi 'arazoa, afera'	«Esan, beraz, zer dela eta zabilzate urdanga horiek salaturiko auzi-mauzi horren bueltan kuxkuxean eta usainka.»	(104)
azpil 'erretilua, bandeja'	«Isidro ogitarteako eta garagardo bat ekarri zizkion azpil batean.»	(70)
aztoratu 'asaldatu, artega, urduri'	«Nahasi eta aztoratu antzera higitzen hasi zen, gelako txoko guztietara begiratzen, zerbait (norbait?) bilatuko balu bezala.»	(98)
bailegoen 'egongo balitz bezala'	«...ezetz, hitz totalka, negar zotinen artean, eta barkatzeko eskatu zion Jezabeli, bertan bailegoen .»	(99)
barreiatu 'sakabanatu'	(Miaketa baten ondoren) «...sukaldeko ontziera zeharo sakabanaturik , nire gela ere guztiz suntsituta... Negarrez hasi nintzen...»	(101)
bederen 'behintzat, gutxienez'	«Jatekoak-eta aukeratu genituen, aukera hark arestian sorturiko tentsioa lasaitzeko eman zigun betari eskerrak emanda, neure barnean bederen .»	(109)
begia begi, hotza hortz '"ojo por ojo; diente por diente"'	«...errukirik gabe jotzeko eskatzen zion, joan nintzenetik pairaturiko une mingots guztien ordaina eskatzeko. Begia begi ordain, hotza hortz .»	(28)
begiak itxita 'begiak betazal'	«—Mikel —erantzun nion ahots apalez, begiak betazal baina, aldi berean, burua goraturik— atzo amaitu gabe utzi zenuen afaria eta...»	(49)
begitandu 'iruditu'	«...gainera idea zoro bat begitandu zitzaion: huts egiten banuen, berarekin itzuliko nintzen.»	(24)
begitarte 'kopeta'	«...atzealdean deshidratatzeaz zegoela zirudien gizonaren auhenak, batetik; eta ondoan neraman mutilaren begitarte ilunaren garrasiz, bestetik	(90)
behazuna 'zapora mingotseko jariora'	«...gibeletik ahora goratzen zitzaidan behazuna ito nahian...»	(94)
(belarri) gingila 'belarriaren "lobulua"'	«(Jezabelen deskripzioa) Urrezko kate bat dingilizka, ezker-eskuma, koroako uso begi errubidunetik. Belarri gingilak belarritako banak apaindurik.»	(15)
belu 'berandu'	«Egia da, Magrebeko arazoa diru sarrerekin konpontzen da; baina belu da oso. Zenbat denbora behar da inbertsio horiek egiteko?»	(111)
beren-beregi 'apropos, berariaz'	«Hondartzara heldu arteko gora-beherak ez dituz ezagutzen. Hamiden berak (...) beren-beregi isildu zituelako.»	(44)
berme 'fidantza, "garantia"'	« Berme moduko gauza bat dela esaten didate behin eta berriro; Serranok utzi zidan dirua eta eman zidan laguntza ordaindu arte.»	(125)
bero zarpail 'sargoria bero jasanezina'	«...jendea han eta hemen ibiltzen zen ilunabarrak zekarren freskoaz jantzi nahian, egunaren bero zarpaila erantzeta nekoso baten ere.»	(10)
bertatik bertara 'hurbil-hurbil'	«...gizonek bertatik bertara hitz egiten zioten, hurreratze honekin emakumea izutzea bilatuko balute bezala.»	(96)
beta 'denbora, aukera'	(Urduritasuna) «...zigarroa ahora eraman eta eraman, kea botatzeko betarik hartu gabe.»	(82)
bide 'antza denez'	«Horatik, ez zirudien poliziak oso kezkatuta zeudenik. Andresek aipaturiko mutilaz interesgarriagoa bide zitzaian-eta txokoa zerabilten karta joko.»	(55)



bildu 'bil-bil egin, mendatu, estali'	«Ondoren lotura batzuk atera eta izterra bildu nion.»	(85)
bilo 'ilea'	«...adatseko bilo beltzak biltzen zituen urrezko koroa buruan heldu zen Jezabel, familiako emakumeen irrintziak lagun.»	(15)
blai 'busti-bustirik'	(Sukarrak jota) «...izerditan blai zeraman alkandora. Izterraren inguruan ipinitako lotura ere blai zegoen, odoletan baino.»	(89)
brastakoan 'bat-batean'	« Brastakoan bota zuen eskuen artean zerabilen artzain makila, eta lasterka joan zen etxera, abagunea galtzeko prest ez zegoela etxekoei jakinarazteko.»	(10)
burko 'almohada'	«...ez zituzten inoiz prakak eranzten eta alkandorak buru azpian ipintzen zituzten burkoak bailiran.»	(17)
burusia 'manta, estalkia'	«...hotza izan behar zuela otu zitzaion. Orduan, bere ohean zegoen burusia hartu eta bere poltsan sartu zuen, indarrean.»	(44)
deblauki 'derrepente, bat-batean'	«—Barkatu baina garestiago izango da - adierazi zigun deblauki . Saidek sartzeko eta lasaitzeko hitz batzuk esan zizkion arabieraz.»	(98)
deitoragarri 'penagarria, auhengarria'	«...bidali dute (..) Ceutako kanpamendu batera, non etorkinak egoera deitoragarrian pilotzen diren.»	(41)
deliberatu 'erabaki'	«Etxera itzuli eta Ahmedi geure gestioen berri ematea deliberatu genuen.»	(69)
demaseko 'gehiegizkoa'	«Bere jarrera ikusi bezain laister isiltzea erabaki dugu, ez baikenuen demaseko jakin-minik erakutsi nahi.»	(69)
dingilizka 'zintzilik, dindilizka'	«(Jezabelen deskripzioa) Urrezko kate bat dingilizka , ezker-eskuma, koroako uso begi errubidunetik. Belarri gingilak belarritako banak apaindurik.»	(15)
dolutu 'damutu'	«Ez dut orain kontatuko dizuedana frogatzerik, baina sinetsiezadazue eta ez zaizue dolutuko .»	(71)
dorpeki 'baldarki'	«...kostata libratzen nuen noizean behin odola garbitzeko dorpeki nerabilen orratzaren bidean sartzen zen Saiden eskua.»	(85)
durundi 'burrunba, zarata'	«Deigarria zitzaien kaleko durundia , jendearen barbaroa, ilargi agertu berriari uluka eta intzirika zebilzkion txakurra.»	(10)
ebatzi 'erabaki'	«Asmo harekin porrotera bultzatzen ahalegintzea ebatzi nuen, nire kontra hitz egiten hasi zen abokatu giroetan.»	(24)
egiune 'kontratua'	«Espainian lan egiteko egiune baten jabe direla frogatu ostean, lortuko dute (...) bisatua.»	(34)
egoiliar 'biztanlea'	«Hauek behin-behineko egoiliar baimena lortzen zieten eta errefuxiatu eremuetako arduradunen bidez helarazten zieten afrikar emakumeei.»	(82)
egonarri 'pazientzia, jasankortasuna'	«...Nork? —itaundu zion Abdurahmanek, bidean hainbeste aldiz aipaturiko zuhurtasuna eta egonarria beste baterako utziz.»	(11)
ehun 'zapia'	« Ehun zuri batek gerrikatzen zion gorputza, gerri liraina nabarmenduz.»	(16)
emeki 'poliki-poliki, astiro'	«...mahai gainean zegoen ura eskuratu eta trago bat hartu zuen, emeki , zurrupada bakoitzarekin eztarria garbitu nahi balu bezala.»	(41)
engaiamendu 'konpromisoa'	«Hondartzan aurkitu zintugun egunean hizketan ari ginen, guztiz etsirik, geroago eta ahulago sentitzen baikinene gure engaiamenduan »	(54)
engaiatu 'konpromisoa hartu'	«Borroka batean engaiaturik jarduten du, gau eta egun, osasuna ere arriskuan ipini arte.»	(35)
eramangaitz 'jasanezina, jasangaitza'	«—Ordubete eman dut, Said, egoera eramangaitz hari eurre egiten, polizia ustel horien artean nork lagunduko bilatzen.»	(92)
erdietsi 'lortu'	«Zelan erdietsiko dute lan hori euren herritik irten gabe? Horregatik etorri behar dute; han aurkitzen ez duten lana Europar topatuko dutelakoan!»	(34)



erkain 'erimokoa, hatz punta'	«Nire esku fina sentitu zuen, erkainak ile kizkurretan jolasten, lagun, bero.»	(42)
eroapen 'pazientzia, jasankortasuna'	«...gutxika-gutxika, eroapenez , Mikelek zapaltzen zuen lur finkoa urratuz joan nintzen, harik eta oinarririk gabe utzi nuen arte.»	(24)
errezel 'leihoko kortunatxoa'	«Gero altxatu eta leihora hurbildu zen. Errezelak estutu zituen aurpegiaren aurka (...) malkoak lehortzeko.»	(41)
erruki 'gupida'	«Autoko izpilutik begiratzen nuen maiz, atzekaldean etzanda, zeharo zurbilduta zihoan gizonari errukiz ...»	(87)
errukior 'gupidatzen dena'	«...etxarte estu batera eraman zituen, atzean, noiz algara bizian, noiz isilka, kontu kontari uzten zituztenen begirada errukiorren jomuga zirela oharturik.»	(11)
esangin 'esanekoa'	«...putazainarengana joan, motorrean igo eta lantokira itzuli zen, esangin .»	(96)
esku hartu 'parte hartu'	«Ahmed isilik zegoen, Saiden eta bion arteko elkarrizketa urduria entzuten, esku hartu barik, gaiarekin zerikusirik ez balu bezala.»	(53)
etsi 'esperantza galdu'	« Etsitzear geundela, hiru egun geroago, dei bat jaso nuen eskuko telefonoan.»	(130)
ez bat eta ez bi 'pentsatu eta egin'	« Ez bat eta ez bi , pentsatu eta Ahmedi esan zion bere etxekeo helbidea, haraino joan eta haiekin harremanetan jartzeko.»	(59)
ezbaika aritu 'eztabaidatu'	«...Gazteak ez zion ezbaika aritzeko aukerarik eman.»	(11)
eztei 'ezkontza'	«Arrebaren ezteietako irudiok gogoan iltzaturik zituen Ahmedek.»	(15)
fereka 'laztana, ukitua'	«(Mikelek) begiak Said eta bion atzamarren artean lotu zituen, elkarri emandako fereka leunak buruan sentitu arte.»	(35)
galga 'balazta'	«...azkeneko gizonak oinak lurrean ipini bezain laster eskuko galga kendu eta kamioiari bidean aurrera joaten utzi zion.»	(18)
ganibet 'labana'	«... "Kontuz!", oihukatu nuen, gizonak labankada ematear zegoela. Atzera egin zuen Saidek, ganibet xafla saihestera gutzit heldu barik.»	(83)
garondo 'lepagaina'	«Esnatu eta banan-banan hurreratzen ziren sukaldean zegoen iturri bakarrera, musua, garondoa eta besapeak freskatzera.»	(16)
gatibatu 'interesatu, harrapatu'	Bistan zegoen gaiak gatibatzen ninduen eta barruan neramana.»	(35)
gazur 'sueroa'	«Ariñ! Jar izeaiozue gazur poltsa bat eta erietxera, azkar! eta zuek guztiak ere ospitalera, azterketa medikua egitera!»	(133)
geniharduela 'aritzen ginen'	«Berbetan geniharduela , atletik urrundu gabe artean, emakume bat hurreratu zitzaigun.»	(68)
gerrikatu 'gerria estutu, markatu'	«Ehun zuri batek gerrikatzen zion gorputza, gerri liraina nabarmenduz.»	(16)
gerruntze 'kortse, gerriko estua eta sendoa'	(Prostituta baten deskripzioa) «...zapata takoidun garaiak, gona motz estua, gerruntze beltz are estuago ezkututzen zuen larruzko jaka zuria...»	(95)
gibelean 'atzean'	«Kalakan eta berriketan iritsi ginen etxera, España tabernan jazorikoa gibelean lagata. Gertaera hark bi minutuko kezka baino gehiago merezi ez zuelakoan.»	(56)
giltzarrapo 'kandadua, sarraila'	«Zabaldu nizkion hiru urtetako isilunea ezkututzen zuten giltzarrapoak .»	(33)
gogaikarri, gogaitu 'aspergarria, aspertu'	«Haizetsu zebilen eguna, haizea pitin bat gogaikarri egin arte ibili ere.»	(107)
gogobeterik 'ilusionaturik'	«Baina lasai geunden, Jezabelen hiltzori luzean eman genuen hitzarekin gutzit gogobeterik . Eta engaiaturik.»	(134)



goibeldurik 'triste'	« Goibeldurik zegoen Ahmed, Angelikaren malkoak ikusita (...) Saiden itzulpenaren bildur.»	(72)
gomutatu 'gogoratu'	«Hiru urte pasatu dira eta (...) horrenbeste jende pasatzen da hemendik, ez zaizu berezia iruditzen bien izenak horren ondo gomutatzea? »	(68)
gorako 'okada'	«Gaur, likidoak ere botatzen hasi naiz, edan ahala gorakoa etortzen zait. Zikin zikin dago nire ingurua.»	(127)
gori 'oso beroa, gorri jarri arte'	«...hala nola leize batetik behera erortzeko zorian dagoenak, gori dagoen iltzeari oratzen dion.»	(49)
gorro 'kerrua, karkaixa'	« Gorro bat sentitu nuen gora eta behera, hitzok ito guran; eztarria marrantatu zitzaidan kontzientzia lardasten den era berean...»	(30)
gurari 'nahikaria, apeta'	«...urte guzti haietan ni ahaztu ezinak bihotzaren gurariei men egin behar ziola esaten zion behin eta berriro ahapeka bazen ere.»	(28)
gurgurka 'tripa hotsak, gosez'	«Ez dakit zuek, baina nik behintzat gurgurka ditut tripak, hemen oso berandu afaltzen baituzue.»	(30)
haatik 'hala ere, alabaina'	«Ahmed eta Abdurahman... ohituak ziren atzerritarren joan-etorriekin. Bazen, haatik , penaz eta amorruez begiratzen zienik.»	(10)
habuintsu 'lerdetsu, adurti, mazkagarria'	«Brigada Nagusiko egoitza irtetear nengoela garrasi egin zidan habuintsu bera zen!»	(96)
harik eta... arte 'arte'	«...ostatua emango zietela, esan zien, harik eta Europara eramango zituen laguna harekin harremanetan jarri arte .»	(12)
harrabots 'astrapala, zarata handia'	«...jendearen barbaroa, txakurren intzirriak, burdinen kirrinka...). Harrabots hark ez zuen zerikusirik eurek aspaldi utzirik sutondoko elkarrizketa	(11)
hauteman 'antzman, sumatu, igarri'	«Atsegin nuen begiak narras eramatea, mendi mazeletan behera, apurka, (...) Eta mendi hegalean, begiak nola, horrela hauteman nuen gogo...»	(108)
hazkor 'gehigorantz doana'	«Sinesgaitza zen Ahmed ezagutu zuen egunean izandako portaera arras arrazista haren parean, azken egunotako adizkidetasun hazkorra ikustea.»	(111)
herra 'arrenkura, gorrotoa'	«—Nik ezagutzen zaitut!, kabroia! (...) —esan nion herraz , polizia haren ahotsaz ohartuta— Luis Angel Serrano zara!»	(103)
hil hurrean 'hiltzorian'	«...gorputzaren defentsa guztiak makal-makal daude, indarge. Oso txarto dago, hil hurrean .»	(133)
hits 'triste, goibel'	(Gutierrez Solanaren margolanaren emagalduen deskripzioa) «...hiria estaltzen duen zero goibel eta hitsa .»	(92)
hitzordua 'lotordua, "cita"'	« Hitzordua ipini zuten heriotzarekin itsasarte zeharkatzea erabaki zuten egunean, eta izkin egin zioten; baina honaino jazarri du, errukigabea.»	(134)
hizpide 'elkarrizketaren gaia'	«Ezteietara gonbidaturikoek soinekoaren ederra zuten hizpide .»	(15)
hondo 'barruko alde, behekoen'	«Eta aspaldiko hartan bezala, jatetxeko hondoko hormaren ondoan zegoen mahaira eraman gintuen zerbitzariak...»	(108)
horma 'izotz blokea'	«Zer uste duzu, ba arazoak kafe bero batean desegin daitezkeela, izotz hormak bailiran?»	(89)
horratik 'hala ere'	« Horratik , ez zirudien poliziak oso kezkatuta zeudenik. Andresek aipaturiko mutilaz interesgarriagoa bide zitzaien-eta txokoan zerabilten karta jokoa.»	(55)
hur 'hurbil'	«...uzkurturik, arrokarekin bat eginda, handik hur zabaltzen zen itsasotik begiak urrundu ezinik.»	(18)
hurrenez hurren 'segidan, herrestadan'	«Algecirasen, Madrilan eta Barakaldon datatu zituen hurrenez hurren (idatzitako eginkariko orriak).»	(123)
hurreratu 'hurbildu'	«Andresen tabernara hurreratu ginen biharamunean, hitzarturiko dirua eramatera.»	(54)



hurrup egin 'edan'	«Batera egin zuten hurrup : batak kezkarik eza erakusteko (...) esandako hitzek sorturiko lehorra bustitzeko besteak.»	(79)
idortu 'lehortu'	«...(amorrua sentitu eta)...horzka egin zuen beheko ezpainean, harik eta aurreko egunetako haize lehorrak idorturiko haragia urratu eta mina nabaritu zuen	(15)
ihardetsi 'erantzun, arrapostu'	«—Ez dira delinkuenteak, Mikel!- ihardetsi nion egun hartan, Ahmed delinkuente txikia deitu zionean—...»	(111)
ihartu 'lehortu, sikatu'	«Eztarrria iharturik , hitzek mina ematen zidaten ahots kordak laztantzerakoan; aurreko urteetan eteniko komunikazioa...»	(29)
ika-mika 'kalapita, errieta'	«—Pedro da! Juan Garcariaren anaia —aditu genuen kalean sorturiko ika-miken artean.»	(83)
iltzatu 'iltzez josi'	«...begi nini umelak hurbileko mendietan iltzatu zituen.»	(10)
imintzio 'keinua'	«Berba egiteko imintzinoa egin zuen, hitzik egitera heldu gabe, Mikelek isiltzeko keinua egin zidalako...»	(50)
indarge 'indarrrik gabe'	«Jezabelek ezin zuen gizonaren tema sinetsi, hain makal, hain indarge sentitzen zen.»	(43)
inguru-minguru ibili 'adarretatik ibili'	«—Ez, ez... itxaron! ni Jezabelen laguna naiz —esan nuen inguru-minguru ibili barik— Ez dakit izen horrek zer edo zer diotsun.»	(130)
intzirika 'aieneka, erostaka'	«Deigarria zitzairen kaleko durundia, jendearen barbaroa, ilargi agertu berriari uluka eta intzirika zebilzkion txakurra.»	(10)
iraungi 'kadukatu'	«Potea zabaldu zuen Abdurahmanek: saltxitxa egosiak ziren, iraungiak ; gozoak edozelan ere.»	(14)
irrikatu 'asko desiratu, irrika izan'	«...Han, urrun eta hurbil batera, egon behar zen biek irrikatzen zuten ametsak: Europa.»	(11)
irrimurrika 'barre disimulatua'	«"Emakume galduak —azpimarratzen dute irrimurriken artean— aurkitzeko lekurik txarrenera etorri zara.»	(92)
irudikatu 'imajinatu'	«Patera amorruz zimurtzen irudikatu nuen Mikel. Amorratuta eta mindurik egon behar zuen, ziur naiz.»	(25)
iseka 'burlazkoa'	(Poliziek) «"Halako urdangek ez dituzte eta polizien zirriak maite", irri gaiztoak, isekazkoak , ostera ere.»	(92)
itolarri 'itomena'	«Saidek eta Ahmedek bere herriko kantak abestu zituzten (...) nire barrua hazten zihoan itolarria areagotu zuten kantek, hain doinu malenkoniatsua	(118)
itsasarte 'estrecho" adb.: Gibralterrekoa	«...polizia zelatan zebilen-eta egunik egokiena bilatu behar zelako itsasarte zeharkatzeko.»	(12)
itzuri 'ihes egin, erantzuna saihestu'	«Umearen jatorrian galdetzen hasi omen zen, senarrari ahal zuen guztietan gaiaz berba egiten. Itzuri egiten zion Fabianek.»	(139)
izan ere 'benetan, arestian esan bezala'	«Sentipen sakon horretan gatibaturik sentitu dut askotan (...) Susmoa nuen, izan ere , egun hartan ere itsututa zetorkigula...»	(57)
izeki 'piztu'	«...gure harremana hautsi zen uneko gertaera mingarriak atzera ere izekitzen zitzaizkiola.»	(23)
izkin egin 'saihestu, ekidin'	«Hitzordua ipini zuten heriotzarekin itsasarte zeharkatzea erabaki zuten egunean, eta izkin egin zioten; baina honaino jazarri du, errukigabea.»	(134)
izukaitz 'beldurtu ezina'	«Said (..) Mikeli begira gelditu zen, erantzun baten zain, giza keinu bat bilatzen. Mikel, aldiz, izukaitz zegoen, lasai.»	(36)
jakin arren 'jakinda ere, nahiz eta.... jakin	«Berarengana jotzeko asmotan nindoan Bilbora, berarekin berriz elkartzeko zail zaila izango zela jakin arren .»	(118)
jardunaldi 'ekitaldia, lan saioa'	«Beni-Mellaleko zelaietan emandako sei hilabeteak, atsedetik gabeko orduak, eguzkitik eguzkita arteko jardunak .»	(9)



jazarri 'atzetik jarraiki, persegitu'	«Hitzordua ipini zuten heriotzarekin itsasartea zeharkatzea erabaki zuten egunean, eta izkin egin zioten; baina honaino jazarri du, errukigabea.»	(134)
jazo 'gertatu, agitu'	«Ez zen horrela jazo . Mikelek ez zidan etxera itzultzeko aukerarik eman.»	(25)
jela 'horma, izotza'	«Whiskyan jarritako jelei eragiten ziharduen hatzamar batekin, begiak izotzen likidoan marrazten zuten zirkuluan galdurik.»	(78)
jomuga 'helburua, xedea'	«...etxarte estu batera eraman zituen, atzean, noiz algara bizian, noiz isilka, kontu kontari uzten zituztenen begirada errukiorren jomuga zirela oharturik.»	(11)
josi 'antolatu, lotu'	«Minutu batzuen buruan amaiturik zegoen aurreko orduetan josiriko polizia ekintza. Gizonak polizien autoetan sartu eta...»	(36)
kafe hormadun 'kafe izotzez'	«Said serio ari zen, Juan Garciaren ondoan jasarrita, hari artez behatu gabe, tabernariak ipiniriko kafe hormaduna lasai ...hartzten zuen bitartean.»	(78)
kalakan 'berriketan'	« Kalakan eta berriketan iritsi ginen etxera, España tabernan jazorikoa gibelean lagata. Gertaera hark bi minutuko kezka baino gehiago merezi ez zuelakoan.»	(56)
karkaba 'kuneta, haitzebakia, barrankoa'	«Bera (Mikel) behin baino gehiagotan ibili baitzen mundu horren karkabetan , haietan ezkutaturik, gure gizartearen aurpegiak itsusiena erakusten...»	(117)
karraska 'hotzak eragindako hortzen zarata'	«...begi lausoak, jantziak blai, hotzen karraska nagusi, negar zotinka, sudur hotsak. Polizia nagusiak tentuz arakatu zituen arropak...»	(36)
kaskamotz 'burusoila'	«... kaskamotza bistan uzten zuen ezkerreko belarritik gora ia buru erdia zeharkatzen zion orban eguzkiak gorritua.»	(77)
kasketaldi 'burugogorkeria, aldikada'	«Begiratu, Mikel, auz hau ez da nire apeta, zure ustez sarritan izaten ditudan kasketaldietako bat, alegia.»	(73)
kirioak 'nerbioak'	«Lo egin ezinik eman zuen gaua, kirioak deseginak, urduri, botilen atzean mugitzen ziren saguen pauso txikiak aditzen.»	(57)
kiskalgarria 'erregarria'	«...begi salatzaileek biziro azaltzen zuten (...) bihotzean zeraman su kiskalgarria .»	(29)
kitatu 'ordaindu'	«Berba egiteko imintzioa egin zuen (...) Mikelek isiltzeko keinua egin zidalako, ez baitzegoan prest urte haiek zorrak kitatu gabe joaten uzteko.»	(50)
korridore 'karrejua, pasiloa'	«Saidek, hala ere, ez zigun horretarako aukerarik eman, besterik gabe hizketan jarraitu zuelako, korridorean aurrera zetorrela.»	(51)
kuxkuxean ibili 'ikertu, jakin nahian'	«Esan, beraz, zer dela eta zabiltzate urdanga horiek salaturiko auzi-mauzi horren bueltan kuxkuxean eta usainka.»	(104)
labaingarri 'irristakorra'	«...plaza elurrez estalian. Nabaria zen baten batek bidea garbitua zuela, oinezkoen ibilera labaingarriak saihesteko.»	(31)
laketurik 'zerbaiten plazerra sentituz'	«Whiskyak eztarria eta bularra erretzen zizkiola nabaritu zuen, ahoan utziriko zapore gustagarriak laketurik .»	(79)
lardestu 'lardaskatu, hondatu'	«Gorro bat sentitu nuen gora eta behera, hitzok ito guran; eztarria marrantatu zitzaidan kontzientzia lardasten den era berean...»	(30)
lastaira 'lastatia, belarra gordetzeko tegia'	«Ez dugu ezer, ezta lo egiteko lastaira triste bat ere.»	(42)
lastamarrega 'koltxoneta puzgarria'	«...hogeita bi lagun zeuden lau gelatan banatuta; bosna lastamarrega , zahar eta lohi.»	(12)
lastertasuna 'abiadura'	«Eta artez so egiten nion lastertasuna adierazten zuen orratzari, arinegi joanez gero, Goardia Zibilarekin topo egiteko arriskua...»	(88)
latz 'gogorra, lakatza'	«...hitzik gabe, inguruan zeukaten egoera latz hari beha aritu ziren lehen uneetan.»	(13)
lauso 'lanbroturik, malkoz beterik'	«"Niri bost!" otu behar izan zitzaion Saidek gozo hitz egin zidan bakoitzean, nire begi lausoetan harenak urtu zirenetan.»	(37)



laztu 'ileak tente jarri'	«Hartaz hitzegitean laztu egiten zaizkidan ileok! berriro ere agertu da egunotan, agh!».»	(65)
legetxe 'bezalaxe'	«Jezabelek beso artean hartu zuen Hamid eta sutsu hasi zen musukatzen (...) atzetik joango zitzaiola herritik irten zirenean agindu legetxe .»	(44)
limurtu 'zuritu, komentzitu'	«Gizonak, haatik, jakin zuen etxeokoz uztera limurtzen , bere ametsetan gatibu egiten.»	(40)
lipar 'momentua, ueña, eretia'	«Pausoz pauso itzuli den egunez ezkutalekutzat hartutako lekuetara, gauez ibilitako bideetara, bizi izandako lipar batez berregin nahian.»	(9)
lotu 'geratu'	«Horregatik, lotutako lekuan agertu zenean, sentzazio berezia izan nuen.»	(27)
malenkoniatsu 'tristeia, goibela'	«...nire barrua hazten zihoan itolarria areagotu zuten kantek, hain doinu malenkoniatsua zuten.»	(118)
maluta 'elur zatia'	«...ikuspegi polita osatzen zuten (...) zuhaitz adarren gainean, oreka harrigarrian, baturiko elur malutek zurituri.»	(31)
marrantatu 'katarratu', erlastu'	«Gorro bat sentitu nuen gora eta behera, hitzok ito guran; eztarria marrantatu zitzaidan kontzientzia lardasten den era berean...»	(30)
mazela 'masaila, malda'	«Atsegin nuen begiak narras eramatea, mendi mazeletan behera, apurka, gero eta arinago, begiratua arrapaladan zihoala sentitu arte.»	(107)
men egin 'obeditu'	«...urte guzti haietan ni ahaztu ezinak bihotzaren gurariei men egin behar ziola esaten zion behin eta berriro ahapeka bazen ere.»	(28)
mingots 'samina, gozogabea'	«...errukirik gabe jotzeko eskatzen zion, joan nintzenetik pairaturiko une mingots guztien ordaina eskatzeko. Begia begi ordain, hotza hortz.»	(28)
molokot egin 'porrot egin'	«Ez nintzen Madrildik Bilbora joan, azalpenik gabeko izu lelo batek menderatu eta bertan molokot eginda itzultzeko.»	(47)
musu 'muturra, aurpegia, bisaia'	«Esnatu eta banan-banan hurreratzen ziren sukaldean zegoen iturri bakarrera, musua , garondoa eta besapeak freskatzera.»	(16)
mutualdi 'isilaldia, isiltasuna'	«Azkenean, hala ere, ohiko mutualdia nagusitzen zen, eta berriz etortzen ziren beren artera.»	(16)
muzin(du) 'haserrarazi, erretxindu'	«Gainera, halako mugimendu batek Mikel muzin zezakeela pentsatu nuen, zegoen baino ezerosoago utzita.»	(74)
narras 'herrestan, lurretik arrastaka'	«Atsegin nuen begiak narras eramatea, mendi mazeletan behera, apurka, gero eta arinago, begiratua arrapaladan zihoala sentitu arte.»	(107)
nerabilen 'erabiltzen nuen'	«...kenu batez adierazi zidan non sartu behar nuen neure hatzamarretan dardarka nerabilen orratz punta.»	(85)
nini 'betseina (begiaren erdikoa)'	«...lagunen aurrean ezkutatu nahi zituen nini bustiak agerian utzi nahian ez baitzegoen lotsa izateko arrazoirik.»	(53)
nonbait 'seguraski, antza'	«Ez zegoen batere gustura España tabernan, joateko ideiaz erabat damaturik, nonbait .»	(55)
okaztagarria 'nazkagarria, higuingarria'	«Kiratsa zerion etxeari, usain guztiz jasangaitza zetorren txoko guztietatik. Okaztagarria zen oso. Emakumea sukaldean zegoen.»	(132)
olgetan-benetan 'ez guztiz benetan, erdi txantxatan'	«...barkaezina litzateke begi ederrok kristal zikin batzuen atzean ezkutatzea" esaten zidan (...) urduri ipintzen ninduela olgetan-benetan adierazten»	(108)
oratu 'hartu, heldu'	«Halako batean, ohera hurreratu eta besotik oratu zion, handik jaikitzeke aginduz. Jarraian haren erresistentzia ikusita...»	(43)
orban 'manta, narrioa, tatxa'	«...hormak pinturaz soiltzen hasiak ziren eta erakusten zuten haien kontra jaurtiriko pote berriek utziriko zartatu handiak eta orbanak .»	(13)
orpoz-orpo 'bata bestearen atzetik'	«... orpoz-orpo lotzen zituen hitzak, lastertasunak sinesgarriago egingo balu bezala.»	(99)



ostatatu 'ostatu hartu'	(Madriletik Euskal Herrirako bidaia) «Lerman ostatatu ginen.»	(115)
ostendu 'ezkutatu, gorde'	«...eta atzean ea betaurretako kristalak legez, zaintzen zituen hotz zuriak ostentzen ziren, lotsatu samarra nonbait.»	(109)
ostera ere 'berriro ere'	«...garai bateko ilusio eta bizinahiaz sorturiko habian ostera ere sartzeak zimiko erregarri bat sentiarazi baitzidan gorputzean.»	(49)
osterantzean 'bestela, ezpabere'	«Gurekin fidatzen bazara lagundu ahal izango dizugu; osterantzean... (zu bakarrik egongo zara).»	(41)
otoz-oto 'bat-batean'	«Ustekabea erakutsi zuen otoz-otoan nire eskua ikusi zuenean, jarrita geunden mahaira hurreratzeko keinuak egin zizkiola.»	(29)
otu 'bururatu'	«...hotza izan behar zuela otu zitzaion. Orduan, bere ohean zegoen burusia hartu eta bere poltsan sartu zuen, indarrean.»	(44)
ozpindu 'garraztu, kerratu'	«—Horrela segitzen baduzu, zutundu eta alde egingo dut! (...) Ozpindu zen giroa. Handik aurrera, meteorologo bihurtu ginen biok.»	(113)
pairatu 'sufritu'	«...errukirik gabe jotzeko eskatzen zion, joan nintzenetik pairaturiko une mingots guztien ordaina eskatzeko. Begia begi ordain, hotza hortz.»	(28)
patu 'zoria, destinoa'	«...eta ez dut inorekin nire patua banatzeko asmorik.»	(14)
pertxenta 'liraina, ederra'	«...Jezabel ! Bai, ze emakume pertxenta! »	(68)
petral 'jasanezina'	«...egiten zituen mogimendu guztiak kontrolpean baitzeuden, hartara bereziki jarritako gizon petral baten begirada nazkagarriaren azpian.»	(125)
plantak egin 'itxurak egin, "disimulatu"	«..."Gero eta denbora gehiago ematen du niri beha, eta ez du plantak egiteko inolako beharrik; igartzen da hemen jende guztia dela haren bildur".»	(124)
promestu 'agindu, prometitu'	«Bi gauza promestu nituen Fatima psikologoarekin egon zen bitartean, eta biak bete ditut.»	(141)
saihes(tu) 'baztertu, alboratu'	«—Ezer ez! —erantzun nion amorrua nagusitzen ari zaidanean ezin saihets dezakedan ahoskera zakar horrekin.»	(89)
saihestu 'ekidin (ebitatu)'	«...plaza elurrez estalian. Nabaria zen baten batek bidea garbitua zuela, oinezkoen ibilera labaingarriak saihesteko .»	(31)
saldo 'talde handia, multzoa'	«...emakume saldoa , elkarren artean bost-hamar metro, kalean gora eta behera, hurbil-hurbil igarotzen zitzaizkien autoei keinuka.»	(95)
sama 'iduna'	«Izerdia zerion samari , kokotsean sortu eta bularrean zabaltzen zitzaioa.»	(78)
sano 'ederki, oso'	«Mikel sano armaturik zetorren, ni umiliatzera, mendekua hartzera, eginak eta esanak kitatzera.»	(30)
sapa 'sargoria, txangota'	«Astiro ohituz joan ziren, hasieran sumaturiko kiratsa ere eramangarri egiten zitzaielarik. Bero sapa egiten zuen.»	(13)
sareta 'zursarea, pertsiana'	« Sareta jeitsi nuen, irekita egoteak artegatzen zuela iruditu zitzaidalako. Saidi behatu zion lehenengoz; eta niri gero.»	(99)
sarkor 'zorrotza'	«Nor zen Said izeneko hura galdetzen zuen begirada sarkor hark.»	(30)
sarraila 'cerradura'	«Mikelek ez zidan etxera itzultzeko aukerarik eman. Alde egin nuen egun berean aldatu zuen kanpoko sarraila .»	(25)
satakoan 'brastakoan, bat-batean'	« Sartakoan oldartu zitzaion Ahmed, Jezabel eta Fatimaren argazkia erakutsi ziezaiola arren eskatzen, eta halaxe egin zuen.»	(121)
sigi-saga 'zeharka, ikuska-makurka'	«Nire sorbaldan oinarritu zen Said, jende artean sigi-saga zihoan bikote arrunt bat bagina bezala, Saidentzako makulua nintzelarik.»	(84)



soildu '(pintura) galdu'	«...hormak pinturaz soiltzen hasiak ziren eta erakusten zuten haien kontra jaurtiriko pote berriek utziriko zartatu handiak eta orbanak.»	(13)
sona 'ospea, fama'	«Bikotearen arrakasta, hala eta guztiz ere, ez zen soilik harreman pertsonaletara mugatzen: sona handiko kasu bi irabazi zituen.»	(23)
sorgor 'ezaxolatia, arduragabea'	« Sorgor gelditu zen atearen ondo-ondoan, behinola bere amak deitzen zion izena berriro ere entzutean (Fatima).»	(138)
sumatu, somatu 'antzman, ohartu'	«Astiro ohituz joan ziren, hasieran sumaturiko kiratsa ere eramangarri egiten zitzaielarik. Bero sapa egiten zuen.»	(13)
-t(z)eari lotu gintzaizkion '-t(z)en hasi ginen'	«Bazkaria prestatzeari lotu gintzaizkion .»	(70)
tarteka-marteka 'aldiz behin'	« Tarteka-marteka , Saidi eta Ahmedi zuzentzen nizekion hitzok; beste batzuetan, leihora hurbildu eta kaletik pasatzen zirenei (begira nengoen).»	(92)
tiradera 'kajoia'	« Tiraderetan gauzak arakatzen hasi zen, izandako bihozkada baieztia ziezaiokeen froga baten bila.»	(120)
txitean-pitean sarritan, maiz, askotan	(Aukera berdintasunaz) « Txitean-pitean komunikabideetan aireratzen diren gizarteratzeko egitarau ederren bidez?»	(91)
ubide 'erretena, lubakia'	«Putakume hark ubide zikin batean jaurtiki zituen bi gorpuok.»	(53)
ugazaita 'aitatzat hartutako pertsona'	«Neskatila, baina, nirekin hitz egiten hasi zen, bere ugazaitari ihes egin zion bitartzean.»	(138)
uger 'herdoildua'	«"Bienvenidos" zioen seinale uger batera hurreratu ziren Ahmed eta Abdurahman (Ceutan sartzerakoan).»	(9)
uriola 'uholdea'	«...irensteko esforzua egin zuen, eztarrian behera ziohoakidan uriola nabarituz.»	(49)
urruma 'urrueta, "garraspeando"	«Ur tragu bat hartu eta urruma egin nuen traba egiten zidan gorroa urtu nahian.»	(30)
utikan 'kanpora'	« Utikan munduaren salbatzailea izateko grina! Utikan orojakile eta ahalguztidun izan zaitezkeelako uste hori! Utikan ...!»	(89)
uzkurtu 'kukubilkatu, makurtu'	«... uzkurturik , arrokarekin bat eginda, handik hur zabaltzen zen itsasotik begiak urrundu ezinik.»	(18)
xehe 'zehatza'	«Mikelen lanaren nondik norakoak kontatu nizekion, ahalik bezain zehatzen, egoeran ematen zuen bezain xehe .»	(33)
xume 'apala'	«...alferrik ibiliko zarete mandatari xumeok akabatzen, nire lagun horiek beste bat bidaliko lituzkete...»	(79)
zakar 'ezatsegina	«—Ezer ez! —erantzun nion amorrua nagusitzen ari zaidanean ezin saihets dezakedan ahoskera zakar horrekin.»	(89)
zalu 'bizkor, arin, agudo'	«Nabaritzen baduzu poliziak kamioia gelditu eta barrukoa aztertzeke asmoa duela, arin eta zalu ibili beharko duzu.»	(51)
zantar 'zikina, lizuna, likitsa, lohia'	(Gutierrez Solanaren margolanaren emagalduen deskripzioa) «Emakume ilun, aurpegi zigortuak, jantzi zantarrak soinean.»	(92)
zantzu 'seinalea, aztarna'	«Horretara iruzurra egerian utzia zela ikusi zutenean, berriro desagertu ziren inolako zantzurik utzi gabe.»	(94)
zargaldu 'argaldu'	«Guztiz zargaldurik zegoen; begiak zulo ilun horietan sarturik, bizi arrastorik gabe.»	(133)
zartatu 'kolpe, brastada'	«...hormak pinturaz soiltzen hasiak ziren eta erakusten zuten haien kontra jaurtiriko pote berriek utziriko zartatu handiak eta orbanak.»	(13)
zaugarri 'zauritu daitekeena'	«Poliziak gizon guztiz gehienak harrapatu zituen. Aurpegiek etsipena erakusten zuten: ahul, zaugarri , menpeko.»	(19)



zazpiak zazprietan 'azprietan zuzen, puntuan'	«... zazpiak zazprietan heldu nintzen esandako lekura, Mikel Ahmed eta Said artean iritsi gabe.»	(131)
zeharo 'guztiz'	«Lekukoak bilatzen ziharduen, oihuka, zeharo artegaturik.»	(83)
zein baino zein 'norgehiagoka'	«... zein baino zein ibili behar izan zuen ondorengo urteetan kulpaduna behatzen zuen hatz akusatzailea norberaren aurka...»	(28)
zelatan 'ezkutuan'	«...polizia zelatan zebilen-eta egunik egokiena bilatu behar zelako itsasarte zeharkatzeko.»	(12)
zeritzeten 'deitzen zieten'	«Kostazainek, modu txarrean, poparen ezker-eskuman jarri zituzten iheslariak, <i>mojaditos zeritzetenak</i> .»	(45)
zerraldo 'hilik'	«Juan Garciaren morroia lurrean zetzan, zerraldo ahotik odola zeriola.»	(83)
zetzan 'etzanda zegoen'	«Juan Garciaren morroia lurrean zetzan , zerraldo ahotik odola zeriola.»	(83)
zimiko 'imurtxia, atximurkada'	«...garai bateko ilusio eta bizinahiaz sorturiko habian osterera ere sartzeak zimiko erregarri bat sentiarazi baitzidan gorputzean.»	(49)
zimurtu 'tximur egin, zimeldu'	«Pepa amorrutaz zimurtzen irudikatu nuen Mikel. Amorratuta eta mindurik egon behar zuen, ziur naiz.»	(25)
ziostan 'esaten zidan'	«Oso ondo egin duzu Maixabel, sendagile eredugarria izango zinateke" ziostan , artazi batzuekin haria moztu (...) bitartean.»	(85)
zirkin 'keinua, mogimendua'	«...kanpoan edo barruan segitu behar zuten erabakitzeke unea heldua zela arranguraz esanda, atea ixteko zirkin eginez.»	(12)
zirrara 'inpresioa, hunkipena'	«Uraren laztanak behar zituen, aspaldiko zirrarak berriro ernatzen nabaritzen zituelako bere gorputza bizirik zegoela berriro... sentitzeko.»	(50)
ziztrin 'ezdeusa, balio gutxikoa'	«—Itsu zaude! ez duzu ikusi nahi! (...) gosez hiltzea eta bizi ahal izatearen arteko marra garbi hori. Ba, marra hori, Mikel lan bat da, lan ziztrin bat!»	(112)
zohardi '(zeruko) garbia'	«Jezabelen begi zohardia gogoan, neska begi mintzatzailearen irria present, patu haren zergatiaz galdetzen zion bere buruari.»	(15)
zotin 'hipa, zinkurina'	«...mutikoaren sudur hotsak aditu nituen, pentsatzea oztopatzen zioten negar zotinak .»	(42)
zurrutean ibili 'edaten'	«...(poliziak) bere tabernan ibiltzen dira egunero kartetan edo zurrutean , joko eta parrandako lagunak dira.»	(52)